# Aldaketa garaia hezkuntzan: desegituraketa sortzailea

# Tiempos de cambio para la Educación: desestructuración creativa

# *Changing times for Education: Creative Destructuring*

**Gure garaiko oinarrizko aldaketa ezagutza ekoizpenaren eragile nagusi bihurtzetik dator. Ezagutza ezaugarri erabat pertsonala denez –gizakia eta ezagutza ezin dira banandu–, eta libreki desiraturiko lankidetzatik sortzen denez, gizabanakoarekin eta haren gizarteekin batera mugitzen da ezagutza, nolabait (lan industrialean, aldiz, langilea makinaren menpe dago lanorduetan). Beraz, ekoizpenak bizitzako esparru oro bereganatzen du, eta baita bizitzak berak ere lana. Izan ere, karikatura moduan esanda, gizakia eta bere produkzio bitartekoak elkarri lotu-lotuta daude; bereiztezinak dira erabat. Hementxe dago lehen kontraesana: lana, boterea eta jabetza antolatzeko ditugun egiturak produkzio industrialaren oinarrietan daude finkaturik, lan indarraren alokairuan, alegia. Eta ezagutza alderdi sozialarekin lankidetzan azaleratzen den ahalmen pertsonala denez, inolako erakunde juridikok ezin du "haren jabe" izan.**

**Trebakuntza ez dago kontraesan horretatik at; sortzen duen aldaketaren oihartzunaren giltzarria da, hain zuzen. Trebakuntzak langilearen eta herritarraren denaren eta izango denaren arteko bidean aurrera egiten duen heinean, borrokaren muinean kokatzen da, ezagutza masiboaren (sortzeko modu bat eta, ondorioz, etorkizuna askatasunez eraikitzeko era den aldetik) eta garai industrialaren paradigman ezarritako jabetza eta botere egituren arteko borrokan, alegia. Gatazka horren funtsa ezagutza soziala, lankidetzarena, sortze indarra bihurtuko ote den eta beraz aldaketarako indarra edota ezarritako botere egiturek kontrolatu, irentsi eta bideratuko ote duten erabakitzean datza.**

**Jada XX. mendearen amaieran aipatu zuten kontraesan hori indarrez azaldu da XXI. mendeko gertakarietan, egun pairatzen ari garen asaldura soziopolitiko bortitzek argi utzi baitute. Ez da arraroa, beraz, botereak hezkuntza "erreformatu" nahi izatea. Eta asmo horretan esanguratsua iruditu zait –argi mintzo delako– Frantziako Hezkuntza ministro Luc Ferryk berriki "Eskola maite dutenentzako gutuna" [1] idazkian adierazitakoa. Horra zer proposatzen digun: "berrikuntza tradizioaren**

**1 EL PAÍS, 2003.04.08, 13.or.**

La transformación fundamental de nuestra era viene dada por la conversión del conocimiento en el factor masivo de producción. Al ser el conocimiento un atributo estrictamente personal – inseparable de la persona– y que sólo se reproduce en la cooperación libremente deseada, este se mueve –digámoslo así- con el individuo y sus sociedades (a diferencia del trabajo industrial, en el que el trabajador "pertenece" a la máquina en las horas de trabajo). Por tanto, la producción invade todo ámbito vital al tiempo que la vida invade el trabajo, ya que, por expresarlo de forma un tanto caricaturesca, la persona y sus medios productivos son, literalmente, inseparables. Y aquí encontramos ya una primera contradicción: Nuestras estructuras de organización del trabajo, de poder y de propiedad están asentadas sobre las bases de la producción industrial, sobre el alquiler de la fuerza de trabajo. Y el conocimiento, como potencia personal que se expresa en la cooperación de lo social, no puede ser "poseído" por ningún ente jurídico.

La formación no es ajena a esta contradicción; más bien, se sitúa en la clave de bóveda de la transformación que genera. En efecto, en la medida en que la formación recorre el plano entre el ser y el llegar a ser del trabajador y del ciudadano, se encuentra en el "ojo del huracán" de la batalla que se libra entre el conocimiento masivo como forma de creación –y, por tanto, de construcción libre del futuro– y las estructuras de propiedad y poder asentadas en el paradigma de la era industrial. El epicentro de este conflicto consiste en decidir si el conocimiento social, cooperativo, se convierte en fuerza de creación, y por tanto, de transformación, o bien es controlado, absorbido y reconducido a las estructuras de poder establecidas.

Esta contradicción, ya expresada en el final del siglo XX, emerge con toda potencia en los acontecimientos del siglo XXI, evidenciada por

*The fundamental change of our age comes from the transformation of knowledge into the mass production factor. As knowledge is a strictly personal attribute – inseparable from the person – and it can only be reproduced in freely desired cooperation, this – shall we say – moves with the individual and their societies (as opposed to industrial work, where the worker "belongs" to the machine during work hours). Therefore, production invades our entire life environment at the same time as life invades work, since, to express it in a somewhat absurd way, the person and their productive means are literally inseparable. And it is here that we find the first contradiction: our work, power and property organisation structures are founded on industrial production bases, on the leasing of the work force. And knowledge, as a personal potential expressed in terms of social cooperation, cannot be "possessed" by any legal body.*

*Training is not far from this contradiction; in fact, it is the keystone of the transformation it creates. Indeed, insofar as training covers the area between being and becoming workers and citizens, it is in the "eye of the hurricane" of the battle being waged between mass knowledge as a form of creation – and, therefore of the free construction of the future – and the structures of property and power situated in the paradigm of the industrial age. The epicentre of this conflict is deciding whether social, cooperative knowledge is transformed into a creative force and therefore one of transformation, or whether it is controlled, absorbed and redirected to the established power structures.*

*This contradiction, already expressed at the end of the twentieth century, emerges with full force in the events of the twenty-first century, as demonstrated by the brutal socio-*

aurrean, benetakotasuna merituen aurrean, dibertsioa lanaren aurrean eta mugarik gabeko askatasuna legeak mugatutako askatasunaren aurrean balioesteagatik sortutako krisiari" amaiera ematea. Bere aburuz, "1968ko maiatzarekin berezkotasunaren ideologian murgildu ginen, norberaren adierazpenen balioespenean, benetakotasunarenean, sormenarenean, iraganeko herentziak errefusatzeko joeraren gorespenean...". Ikaslea hezkuntza ekintzaren ardatz bihurtzea akatsa dela ohartarazten digu, halaber. Mezua oso argia da: ekoizpenaren faktore nagusitzat hartzen diren ezagutza ezaugarrien kontra borrokatzea (berrikuntza, irudimena, benetakotasuna, plazerra, askatasuna), diziplinan oinarrituriko gizartera itzultzea eta ikaslea, ikaskuntzako subjektu aktibo izan beharrean, "objektu" bihurtzea.

Non erabakiko da gertakarien norabidea? Ez dut inolako zalantzarik; geletan, ikastetxeetan eta hezkuntza taldeetan, batik bat. Eta horren ondorioz, irakasleen eginkizuna ezinbestekoa izango da aldaketak eragiteko edota botereak agindutakoaren hartzaile pasibo gisa etorkizuna diseinatzeko, eta ez bakarrik hezkuntzarena, baita haren ondorio sozial ikaragarriarena ere (ez dugu ahaztu behar gure gobernariei halako beldur handia ematen dien "mamua", 68ko belaunaldia, geletan sortutakoa dela. Beraiek oso gogoan dute hori).

Hezitzaileen arazoa hauxe da funtsean: ezagutzaren langilea ekoizpen prozesuko protagonista material eta subjektibo gisa indartzen ari zen heinean, irakaslea (bigarren hezkuntzakoa, unibertsitatekoa eta lanbide heziketakoa, batik bat), ezagutzaren langile nagusia, proletargo bihurtu nahi izan dutela. Hau da, eginkizunak zehaztasunez eta errepikapenaren poderioz ezarri zaizkio, bere denborak kontrolari lotutako zeregin eta burokraziarako diseinatu dizkiote, askatasuna ahal bezain beste murriztu diote... Hezkuntza orokortu izanaren ondorioa da hori, pilaka eta pilaka ekoizteko makina bihurtu baita.

Ba al dago aldatzeko aukerarik? Bai, noski. Nire iritziz, honako esparru hauek izango dira aldaketa iturriak:

• Irakaslearen adimena eta beroa, errealizazioa – nola lanaren eremukoa hala pertsonala– ez baitu proletargo izanez lortuko, ezagutzaren langile bihurtuz baizik, eta ezin dugu ahaztu errealizaziorik ez bada lortzen, frustrazioaz hitz egin beharko dugula.

• Ikaslea gizaki sortzailetzat hartzea, ez hezkuntzaren objektutzat.

• Aldaketaren protagonista guztiok elkarlanean (eragile eta ekintzaile izanik aldi berean) abian jarriko ditugun sareak, ezagutza



las brutales convulsiones sociopolíticas que vivimos. Nada de extraño tiene, pues, que el poder se disponga a "reformar" la educación. Y en este intento me ha resultado muy significativa –por su claridad- la exposición que el ministro de Educación de Francia, Luc Ferry, ha realizado recientemente en su "Carta a todos aquellos que aman la escuela" [1] proponiendo poner fin a "la crisis provocada por valorar la innovación en detrimento de la tradición, la autenticidad a despecho del mérito, la diversión contra el trabajo y la libertad ilimitada en lugar de la libertad limitada por la ley" para señalar que "con Mayo del 68 se entró en la ideología de lo espontáneo, en la valoración de la expresión de uno mismo, de la autenticidad, de la creatividad, el rechazo de las herencias pasadas..." Advierte, así mismo, del profundo error que supone poner al alumno en el centro de la acción educativa. El mensaje es muy claro: Guerra a los atributos del conocimiento como factor masivo de producción (innovación, imaginación, autenticidad, placer, libertad) y vuelta a la sociedad disciplinaria, rechazo del alumno como sujeto activo del aprendizaje para resituarlo como "objeto" del mismo.

¿Dónde se va a decidir el rumbo de los acontecimientos? No me cabe duda alguna que, fundamentalmente, se hará en las aulas, en los centros educativos, en las comunidades educativas. Y, en consecuencia, el papel del profesorado se torna esencial, sea como agente activo de la transformación, sea como receptor pasivo de lo ordenado por el poder, para diseñar el futuro, no sólo de la educación, sino también de su formidable impacto social (no olvidemos que ese "fantasma" que quita el sueño a nuestros gobernantes –el 68- arrancó desde las aulas, y ellos sí lo recuerdan).

El problema con los profesionales de la formación consiste esencialmente en que, mientras emergía el trabajador del

1 EL PAÍS del 28.04.2003, pág. 13

*political upheavals we are experiencing. There is nothing strange, then, that power is willing to "reform" education. And in this attempt, the explanation made recently by the French Minister of Education, Luc Ferry, in his "Letter to all those who love school"* [1] *strikes me as significant – because of its clarity – in which he proposes ending "the crisis provoked by evaluating innovation to the detriment of tradition, authenticity despite merit, fun against work and limitless freedom instead of freedom limited by law" to point out that "May 68 saw the beginning of the ideology of spontaneity, the valuation of self-expression, of authenticity, of creativity, the rejection of past inheritances...". He also warned of the huge mistake involved in placing students in the centre of the education action. The message is very clear: war on the attributes of knowledge as a mass production factor (innovation, imagination, authenticity, pleasure and freedom) and a return to a society of discipline, of rejecting students as active subjects of learning to reposition them as "objects" of learning.*

*Where is the course of knowledge going to be decided? I have absolutely no doubt that it will occur fundamentally in the classroom, in the schools, in educational communities. Consequently, the role of teachers becomes essential, either as an active agent for the transformation, or as a passive receiver of what is established by power, to design the future, not only of education but also of its immeasurable social impact (we must not forget that this "ghost" that prevents our governments from sleeping – 1968 – had its roots in the classroom, and they do remember this).*

*The problem with training professionals is essentially that whereas knowledge-workers were emerging as the protagonist*

*1 EL PAÍS, 28.04.2003, page 13*

**Aldaketa garaia hezkuntzan: desegituraketa sortzailea**

sortzailearen eragile gisa ditugun ahalmena eta eragina indartuz.

• Hezkuntzaren denbora goitik behera aldatzea. Horixe da nire ustez guztietan garrantzitsuena. Denborak errepikatzen den eginkizun izateari utzi behar dio, kontrola baztertu egin behar da. Denbora irabazi behar dugu elkarrizketarako, sortzeko, eraldatzeko. Ekoizpenean oinarritutako denborari itzuri egin –bi ordutan ordubetean baino bi aldiz torloju gehiago egiten dira, baina bi ordutan gauzak errepikatuz ez da ordubetean baino bi aldiz gehiago ikasten– eta ezagutzaren indar sortzailean oinarritutako denborarako igarobidea burutu behar dugu.



Eta orain argi eta garbi azaltzen zaigu zuzendaritzaren eta zuzendarien eginkizunek gauzatu beharreko aldaketa sakona. Beraiek izan behar dute testuinguru eta baldintza berrien (elkarrizketena, eztabaiden esparruena) sortzaile (askatzaile), testuinguru eta baldintza berri horietan irakasleek ekintzarako duten ahalmena jorra dadin. Beraiek, zuzendariak, daude proletargo bihurturiko irakasle izateari utzi (autoritatean eta agintean oinarritua) eta ezagutzaren ekintzaile bihurtzeko (sormenari dagokionez askatua) igarobideari ekiteko lekurik aproposenean.

**Alfonso Vázquez**
**HOBEST Consultores**
**avazquez@hobest.es**

Tiempos de cambio para la Educación: desestructuración creativa

conocimiento como protagonista del proceso de producción –tanto material como subjetivo-, el profesor (y más claramente, en la educación secundaria, universidad y formación profesional), trabajador del conocimiento por excelencia, ha tendido a ser proletarizado; es decir, sus tareas han sido fijadas con precisión y repetitividad, sus tiempos han sido diseñados para las tareas y la burocracia del control, sus márgenes de libertad han sido reducidos a la mínima expresión... Es el efecto de la universalización de la educación, al convertirla en una máquina de producción en masa.

¿Hay lugar para la transformación? Desde luego. En mi opinión, surgirá desde:

• La inteligencia y el afecto del profesor, ya que su realización profesional y personal no puede darse –no se da, hablemos de la frustración- en su condición proletaria, sino en la conversión de sí mismo en un trabajador del conocimiento.

• El reconocimiento del alumno como sujeto de creación y no como objeto de la educación.

• Las redes que seamos capaces de activar entre los protagonistas de la transformación (agentes y activistas del cambio), reforzando su poder e influencia como agentes del conocimiento creador.

• Y, muy importante, de revolucionar el tiempo de la educación, liberándolo de su carga de tarea repetitiva, de sus controles. Debemos ganar el tiempo para la conversación, la creación, la acción transformadora; pasar del tiempo de la producción –en dos horas se hacen el doble de tornillos que en una, pero en dos horas de repetición no se aprende el doble que en una- al tiempo de la intensidad creativa del conocimiento.

Y ahora aparece con claridad la profunda transformación que se opera en el rol de dirección y directivos: Desde ellos debe partir la creación (liberadora) de contextos y condiciones (de conversaciones, de ámbitos de diálogo) en los que se inscriba el potencial de acción que existe en nuestro profesorado; ellos –los directivos– se sitúan, a su vez, en un punto clave para migrar desde el profesor proletarizado (ejercicio de la autoridad y el orden) al profesor como activista del conocimiento (creativamente liberado).

Alfonso Vázquez
HOBEST Consultores
**avazquez@hobest.es**

*Changing times for Education: Creative Destructuring*

*of the production process – both material and subjective – teachers (and more specifically in secondary and university education and vocational training), the knowledge - workers par excellence, have tended to become proleterianised; i.e. their tasks have been set with precision and repetitiveness, their times have been designed for the tasks and the bureaucracy of control, their freedom frame has been reduced to the minimum expression. This is the effect of the universalisation of education, when it is transformed into a machine of mass production.*

*Is there a place for transformation? Of course. In my view, it will originate from:*

*• The intelligence and affection of the teacher, as their professional and personal performance cannot be given – is not given, let's talk of frustration – in their proletarian condition, but in the transformation of themselves into a knowledge -worker.*

*• Recognising students as subjects of creation and not objects of education.*

*• The networks that we are able to activate between the protagonists of the transformation (agents and activists of change), reinforcing their power and influence as agents of creative knowledge.*

*• And, very importantly, from revolutionising education time, freeing it from its burden of repetitive tasks, from its controls. We should win time for conversation, creation, transforming action; forget about production time – in two hours, twice as many screws can be made as in one, but we do not learn double the amount in two hours of repetition as we do in one – and go for time for the creative intensity of knowledge.*

*And now the deep transformation that operates in the role of management and managers appears clearly: the (freeing) creation of contexts and conditions (conversations, environments for dialogue) where potential for action that exists in our teachers can develop; they – the managers – are in turn situated in a key point to migrate from proletarianised teachers (exercising authority and order) to being teachers as activists of knowledge (creatively free knowledge).*

*Alfonso Vázquez*
*HOBEST Consultores*
*avazquez@hobest.es*